



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

## PRENTSARAKO OHARRA

# **BATZARRETAKO TALDEEK OSASUN ARLOKO ETA EZINBESTEKO ZERBITZUETAKO BEHARGINEK COVID-AREN KRISIAN EGIN DABEN BEHARRA AUTORTU DABE, BAINA EZ DABE TESTU BATERATURIK ADOSTU**

- **PP taldearen arauz besteko proposamen batean “Bizkaitar Argia” goraiipamena emoteko egin dan eskariak atzera bota dau Euzko Abertzaleak eta Euskal Sozialista taldeak autorpen formal horregaz bat egitea.**
- **Gaur egin dan Iraskunde, Gobernamentu On eta Gardentasunerako Batzordean, “Mendeko Akordioa” eta Israelek Zisjordania okupau izana gaitzesteko arauz besteko proposamena onetsi da.**

*(Bilbon, 2020ko garagarrilaren 10ean).* Bizkaiko Batzar Nagusietako talde guztiak bat etorri dira koronabirusak biztu dauen krisian osasun arloko eta ezinbesteko zerbitzuek egin daberen beharra “autortzeko” eta covid-19aren eraginez galeraren bat jasan daberen familien aurrean alkartasuna erakusteko orduan. Talde guztiek kolektiboren bat gehitu edo kendu dabe, arauz besteko proposamen baten bitartez Talde Bereziak (PP) Bizkaiko Batzar Nagusietan planteau dauen esker on horretatik. Halanda be, Batzarretako ganerako talde guztiak (EAJ-PNV, PSE-EE, EH Bildu eta Elkarrekin Bizkaia) proposamenaren kontra agertu dira.

Orokorrean, Eduardo Andrade popularrak defendidu dauen ekimenaren helburua, Bizkaiko Batzar Nagusiek, Bizkaiko gizarte osoaren autormena eta esker ona adierazotea zan “COVID-19aren pandemia honetan erakutsi daberen entrega, irmotasun, sakrifizio eta konstantziagaitik, zerbitzu publikoetako eta funtsezko sektoreetako profesional eta langile guztiei: profesional eta osasun-langile guztiei, farmazia-establezimenduetako langileei, Ertzaintza eta Estaduko gainerako segurtasun-indar eta -kidegoei, udaltzaingoei, armadari, suhiltzaileei eta Babes Zibilari, larrialdietako zerbitzuetako langileei, gizarte-zerbitzuetako langileei, Justiziaren funtsezko zerbitzuetako langile eta profesionalai, boluntarioei, garraio-langileei, banatzaileei, garbiketako langileei, txikizkako merkataritzako eta supermerkatuetako langileei eta lehen mailako ondasunen ekoizle eta banatzaileei”.

Ekimenean, bizkaitarren “gizalegea, elkartasun-sena eta ardurea” be helduarazo gura zan, eta hildakoengaitik “mina eta penea”, eta baita COVID-19



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

gaixotasunaren ondorioz kideren bat galdu daben familien aldeko “babesa eta alkartasuna” be.

Euzko Abertzaleak eta Euskal Sozialistak taldeak bat etorri dira ekimenaren alderdi xedatzaile horregaz, baina azkenean ez dabe onetsi, bertan, zerbitzu publiko ezbardinetako eta arlo ezinbestekoetako profesional eta behargin guztiei “*Bizkaitar Argia-Ilustre de Bizkaia*” goraipamena emotea eskatzen zalako. Talde bi horreen eretxiz, hori “egituratzea gaitza” da, “orokorregia” dalako, norbanako bat edo talde jakin bat autortzen dauen saria dala kontuan izanda.

EH Bildu eta Elkarrekin Bizkaia be PP taldearen planteamentuaren kontra agertu dira, baina kasu horretan persona eta kolektibo batzuk “kanpoan” itzi diralako, eta “danon onerako” behar egiten “ezertan” lagundu ez daben eta “krispazino gehiago sortu” daben “batzuk” sartu ditualako, Bea Ildia EH Bilduko bozeroaleak azaldu dauenez. Persona “guztien” esfortzua balioestearen alde agertu da, “salbuespen barik”, eta ez bakarrik kolektibo jakin batzuek egin dabena.

Israel Escalante Elkarrekin Bizkaia taldeko ordezkariak, bere aldetik, “dominatxo gitxiago eta zerbitzu publikoen aldeko behar gehiago” eskatu deutso PP taldeari, mendekotasuna daukien personak zaintzeko edo soloetan behar egiteko orduan ezinbestekoak izan diran “etorkinak” be autorpenean sartzeko. Bere eretxiz, autorpen onena zerbitzu publikoak “indartzea” izango litzateke, “ospitaleetakoak, lehen arretakoak eta egoitzetakoak”, batez be.

## LARRIALDIETAKO ZERBITZUAK

Batzorde berean, Foru Gobernua eusten daben taldeek eta Talde Bereziak ez dabe onetsi EH Bilduk planteau dauen eta Elkarrekin Bizkaiaren aldeko eretxia jaso dauen arauz besteko proposamen bat. Proposamen horretan, igaz iragarri eban Euskadiko Larrialdien Plana aurkezteko eskatzen jakon Euzko Jaurlaritzari.

EAJ-PNV eta PSE-EE taldeek azaldu dabenez, daborduko beharrean ari dira “sindikatuakaz, beharginakaz eta alkarteakaz” plan hori egiteko. Covid-19ak eta Euzko Legebiltzarrerako hauteskunderen deialdiak plana gelditu egin eben. Izan be, Jane Eyre Urquieta jeltzaleak esan dauenez, Gasteizko Legebiltzarrak aho batez onetsi eban “158 personak” parte hartu daben plan hori aurkeztu daiala Euzko Jaurlaritzari eskatzea.

EH Bilduk, lurralde bakotzeko koordinazino zentroei eusteko, larrialdietako ekipoen egitekoak eta kategoria funtzional bakotxaren zereginak definiduteko



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

eta SOS Deiaken eta larrialdien arteko protokoloak hobetzeko eskatu dau, beti be zerbitzu hobea eta azkarragoa emon ahal izateko, estruktura horren izaera “publikoagaz” jarraituz.

## ISRAEL ETA PALESTINA

Ibone Bengoetxea Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako Diputatuak Elkarrekin Bizkaia taldeagaz eukan haserrea erakutsi dau saioaren hasieran, “startupak” azeleretako Israelgo SOSA erakundeagaz sinatutako hitzarmenaren barri emoteko bere agerraldia eskatu dauelako, berak ez daukalako gaiaren inguruko eskumenik eta bagilaren 3an Teresa Laespada diputatuak eta bagilaren 26an Ainara Basurkok hori guztia argitu ebelako. Talde Berezia (PP), Euskal sozialistak eta Euzko Abertzaleak taldeek be bat egin dabe kexa horregaz, eta Aldundiko ordezkariak beste batzorde bietan egin ebezan adierazpenak aitatu ditue. Juan Otermin sozialistak esan dauenez, gai hori “10 bider” landu da Bizkaiko Batzar Nagusietan.

EH Bildu talde morearen alde agertu da, SOSAgaz sinatuta dagon akordioa “apurtu” daiten, Palestinako herriaren giza eskubideen kontra dagolako. “Gai hori hona ekarten badogu, zeozer txarto egiten dalako da, Batzar Nagusiek gauza bat esan eta beste bat egiten dabelako”, esan dau Bea Ilardia bozeroaleak.

Baina, Batzarretako taldeak ados jarri dira puntu batean, Estatu Batuetako Presidenteak eta Israelgo Lehen Ministroak, euren aldetik bakarrik, sinatu daben “Mendeko Akordioaren” kontra agertzean, NBEak Palestinaren ganean hartu dituan ebazpenen “kontra” dagolako. Elkarrekin Bizkaia taldeak aurkeztu dauen arauz besteko proposamenak gainerako taldeen aldeko eretxia jaso dau, abstenidu egin dan Talde Bereziarena (PP) izan ezik. Proposamenean jasoten danez, Bizkaiko Batzar Nagusiek “berretsi” egiten dabe “Palestinako herriaren eskubideak defendiduteko eta palestinarrentzat eta israeldarrentzat, guztientzat, bakean, justizian, segurtasunean eta duintasunean oinarritutako etorkizunaren alde behar egiteko” konpromisoa. Bizkaiko Batzar Nagusiak, Nazino Batuek emon dituen hainbat ebazpenetan oinarrituta, Nazino Batuen Erakundeak 1967an ezarri ebazan mugetatik haraindi Israelek egiten dituan okupazino guztien kontra agertzen dira.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

## NOTA DE PRENSA

# LOS GRUPOS JUNTEROS RECONOCEN LA LABOR DEL PERSONAL DE LOS SERVICIOS SANITARIOS Y ESENCIALES EN LA CRISIS DEL COVID SIN ACORDAR UN TEXTO CONJUNTO

- La inclusión para otorgarles la distinción “Ilustre de Bizkaia” en una proposición no de norma del PP, echa por tierra que Nacionalistas Vascos y Socialistas Vascos se sumen a este reconocimiento formal.
- En la comisión Institucional, Buen Gobierno y Transparencia celebrada hoy se ha aprobado una proposición no de norma para rechazar el “Acuerdo del Siglo” y la ocupación israelí de Cisjordania.

(Bilbao, a 10 de julio de 2020). Todos los grupos junteros de la Cámara vizcaína han coincidido en “reconocer” el trabajo de los servicios sanitarios y esenciales en la crisis desatada por el coronavirus y en mostrar su solidaridad con los familiares que han sufrido alguna pérdida por el covid-19. Quien más quien menos ha añadido o eliminado algún colectivo en este agradecimiento que ha sido planteado por el grupo Mixto (PP) en las Juntas Generales de Bizkaia, a través de una proposición no de norma que ha contado, sin embargo, con el rechazo de todas las formaciones de la Cámara (PNV, PSE-EE, EH Bildu y Elkarrekin Bizkaia).

En líneas generales, la iniciativa defendida por el popular Eduardo Andrade pretendía que el Parlamento de Bizkaia manifestara su reconocimiento y la gratitud de toda la sociedad vizcaína a la “entrega, tenacidad, sacrificio y constancia de todos los profesionales y personal de los distintos servicios públicos y sectores esenciales”, en esta pandemia. En el listado de agradecidos incluía también a “farmacéuticos, Ertzaintza y Fuerzas y Cuerpos de Seguridad del Estado, policías locales, ejército, Bomberos y Protección Civil, personal del servicios de emergencias, personal de Servicios Sociales, personal y profesionales de los servicios esenciales de la justicia, los voluntarios, personal del transporte, repartidores, personal de limpieza, personal del comercio minorista y de supermercados, hasta los productores y distribuidores de bienes de primera necesidad”.

En la iniciativa se quería trasladar también el “civismo, sentido solidario y responsabilidad” de los vizcaínos, y se manifestaba “el dolor y la pena” por los fallecidos, así como “el apoyo y la solidaridad” hacia las familias que han



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

sufrido la pérdida de alguno de sus miembros por causa de la enfermedad de la COVID-19.

Nacionalistas Vascos y Socialistas Vascos han mostrado su acuerdo con esta parte dispositiva de la iniciativa, pero finalmente han rechazado la misma, ya que el texto incluía una propuesta de concesión de la distinción “Bizkaitar Argia-Ilustre de Bizkaia” a “todos los profesionales y personal de los distintos servicios públicos y sectores esenciales, algo que han considerado “difícil de articular” por ser demasiado “generalista”, para un galardón que pretende reconocer a un individuo o colectivo concreto.

EH Bildu y Elkarrekin Bizkaia se han negado también a apoyar el planteamiento del PP, pero en su caso por dejar a personas y colectivos “fuera”, e incluir a “algunos” que no han contribuido en “nada” a trabajar por el “bien común”, sino a “hacer más crispación”, ha explicado la portavoz de EH Bildu, Bea Ildia, quien ha apostado por poner en valor el esfuerzo de “todas” las personas “sin excepciones”, no solo de colectivos.

Por su parte, el representante de Elkarrekin Bizkaia Israel Escalante ha pedido al PP “menos medallitas y más arrimar el hombro” por los servicios públicos e incluir en el reconocimiento a las personas “migrantes” que han sido vitales para los cuidados de las personas dependientes o para trabajar en el campo. Para él, el mejor reconocimiento sería “reforzar” los servicios públicos, sobre todo, los de “hospitales, atención primaria y residencias”.

## SERVICIOS DE EMERGENCIA

En la misma comisión, los partidos que apoyan al Gobierno foral y el grupo Mixto, han rechazado una proposición no de norma planteada por EH Bildu, apoyada por Elkarrekin Bizkaia que pretendía instar al Gobierno Vasco a que presentase el Plan de Emergencias de Euskadi que anunció el año pasado.

PNV y PSE-EE han explicado que ya se está trabajando con “sindicatos, trabajadores y asociaciones” en la elaboración de dicho plan, cuya concreción fue frenada por la covid-19 y la convocatoria de elecciones al Parlamento vasco. Precisamente en la Cámara de Gasteiz se aprobó por unanimidad un texto que instaba al Gobierno vasco a presentar dicho plan en el que han participado “158 personas”, según la jeltzale Jane Eyre Urquieta.

EH Bildu ha pedido que se mantengan los centros de coordinación en cada territorio, que se definan las labores de los equipos de emergencias y las funciones de cada categoría funcional, y que se mejoren los protocolos entre



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

SOS Deiak y emergencias, siempre con el objetivo de prestar un servicio mejor y más rápido, manteniendo el carácter “público” de toda esta estructura.

## ISRAEL Y PALESTINA

La diputada foral de Administración Pública y Relaciones Institucionales, Ibone Bengoetxea, ha mostrado su malestar al inicio de la sesión con Elkarrekin Bizkaia por pedir su comparecencia para informar del convenio firmado con la organización israelí de aceleradoras de “startups” SOSA, por no tener competencias sobre el asunto y porque dicho acuerdo ya fue aclarado el 3 de junio por la diputada Teresa Laespada y el 26 de junio por Ainara Basurko. A esta queja se han unido los grupos junteros Mixto (PP), Socialistas vascos y Nacionalistas vascos que se han referido a las declaraciones hechas por sus representantes en sendas comisiones. El socialista Juan Otermin ha detallado que “hasta en 10 ocasiones” se ha tratado este tema en las Juntas Generales de Bizkaia.

EH Bildu se ha puesto del lado del grupo morado para que se “rompa” el acuerdo con SOSA, puesto que atenta contra los derechos humanos del pueblo palestino. “Si traemos este tema es señal de que se hace algo mal, de que las juntas Generales dicen una cosa y hacen otra”, ha dicho su portavoz Bea Ilardia.

En lo que sí se han puesto de acuerdo los grupos junteros es en rechazar el “Acuerdo del Siglo” firmado unilateralmente por el Presidente de Estados Unidos y el Primer Ministro de Israel y que “vulnera” las distintas resoluciones de la ONU sobre Palestina. Una proposición no de norma presentada por Elkarrekin Bizkaia, que ha contado con el apoyo del resto de los grupos, excepto el Mixto (PP) que se ha abstenido, recoge que las juntas Generales de Bizkaia se “reafirman” en su acuerdo para “defender los derechos del pueblo palestino y de trabajar por un futuro de paz, justicia, seguridad y dignidad para palestinos e israelíes por igual”. Las Juntas Generales de Bizkaia rechazan, en base a las distintas resoluciones de Naciones Unidas, cualquier ocupación de Israel sobre territorios más allá de las fronteras delimitadas por Naciones Unidas en 1967.